

Antología de la Narrativa Vasca Actual: itzulpenaren gorabeherak

Juan Mari Becerra

Sarrera

Pozgarria izaten da euskal literaturazko liburuak hartu eta bertan garatzen diren lan desberdinek eskaintzen dutena dastatu ahal izatea; are gehiago, beren orrialdeetan izan dezaketen balio literarioa dela eta, beste hizkuntzetako irakurleei gure literatura hori ezagutzeko aukera ematen zaiela ikustea ere. "Ezagutzera emate" hori, jakina, gaur egun gero eta beharrezkoago bihurtzen ari den eginkizun baten bidez bakarrik da posible: Itzulpenaren bidez, alegia; ez nolanhiko itzulpenez ordea, baizik eta seriotasunez eta benetazko arretaz egiten denaz, hain arriskutsua eta, halaber, hain erakargarria den itzulpenaz.

Gaurdaino euskaratik beste hizkuntzetara itzultako testuen kopurua (literaturazkoa) urri samarra bada ere, gehiagotzen ari dela esan beharra dago. Horren froga txiki bat izan daiteke 1986. urtean argitaratu den "Antología de la Narrativa Vasca Actual" izeneko liburua, Euskal Idazleen Elkarteak bultzatu eta argitara emana. Liburu honetan azken urteotako Euskal Narratibaren 10 testu (ipuin soilak zein nobela zatiak) agertzen dira egileak berak gehienetan edo bestela beste norbaitek gaztelaniara egindako itzulpenarekin batera parez pare jarrita.

Gaurko euskal itzulpena zer nolako egoeratan dagoen jakin nahirik eta aipatutako liburua aztergai hartuta, bertan dauden itzulpenak bakoitzari dagokion jatorrizko testuarekin konparatu ditugu balorazio orokor batzuk ateratzeko asmoz. Artikulu honen helburua beraz izango da laburki azaltzea euskal narratibaren itzulpenaren nondik-norakoa, jarraitu diren irizpideak eta zenbaterainoko itzulpen egokiak lortu diren, beti ondorio orokor bat bilatuz. Horretarako saiatu gara modu sinple eta objetibo batez gertatzen diren akats eta desegokitasunak agerian jartzen era desberdinetako adibideak erantsiz, lagungarriak izango direlakoan. Azkenik esan, ez dela itzulpen bakoitzaren azterketa zehatza, han eta hemen jasotako ezaugarriarik interesgarrien bilketa bat baizik.

OHARRA: Artikulu honetarako aukeraturiko adibideak ez dira zenbait kasutan osoki komentatu; izan ere, momentu horretan esaten duguna egiaztatzeko adibide jakin bat erabiltzea izan bait da gure asmoa, ez besterik.

Gainetiko ikuspegia

Beti gertatu ohi da itzulpen bat eskuetan hartu eta irakurtzeari ekiten diogunean lehenengo inpresioa itzulpena ondo buruta dagoelakoa izatea; baina jatorrizko testuarekin parekatu eta konparatzen badugu, hasiera batean hautemagaitz eta erdi izkutuak ziren zenbait errakuntza agerian jar daitezke, eta orduan lehenengo inpresio hori ilaundu egiten da itzulpen lan horren desegokitasunak eta hanka sartzeak azaleratuz; eta aldi berean itzulpenaren balioa bere egiazko neurrira doitzen da.

Horrekin, hain zuzen, egin dugu topo Antologia honen itzulpenak bakoitzaren jatorrizko testuaren parean jarri eta azertu ondoren. Aurreneko irakurketa batean, eta gainetik ikusita, nahiko lan egokiak baziruditen ere, ez da gauza bera gertatu azterketa aurrera joan ahala eta hasierako iritzi hori indarra eta oinarria galduz joan da.

Beraz, hasteko esan dezagun, itzulpenak orokorki hartuta, zenbait kasutan ez direla behar bezala landu eta jatorrizko testuak ziren baino hobeak izan litezkeela testu itzuliak. Egindako azterketatik ateratzen dugun lehenengo ideia honako hau litzateke: itzulpenen desberdintasun nabarmena; ez da ikusten inondik ere eredu guztiz antzekorik

itzultzaileen aldetik, lortu diren emaitzek adierazten dutenez. Desberdintasun horren zioak bilatzerakoan bat aipatu liteke gure ustez nagusienetakoa izan daitekeena: itzultzaile zeharo ezberdinen eskutik, eta plangintza zehatz bat gabe, itzuliak izatea; antologiaren antolamendu arazoa, alegia. Sarreran esan bezala, 10 testu dira argitaratuak; bada, testu bakoitzaren itzulpena beste 10 pertsonak burutu dute, norberak euskarazko testu bana itzultzeko erantzunkizuna hartu duelarik. Horri gaineratzen badiogu gehienak ez direla lanbidez itzultzaileak, hau da, ez dutela itzulpena ogibide, kontuak atera genitzake eta lehen esandakoa justifikatu.

Beharbada komenigarria izango da laburki azaltzea, liburua esku-ratzeko aukerarik izan ez duenari, nortzuk izan diren jakineko itzulpenak burutu dituztenak; esan behar da gehienbat euskal idazle eza-gunak ditugula, eta beraiek izan direla lanbidez itzultzaileak, hau da, ez dutela itzulpena ogibide, kontuak atera genitzake eta lehen esandakoa justifikatu.

Jose Agustin Arrieta	Laura Mintegi
Bernardo Atxaga	Ramon Saizarbitoria
Mikel Hernández	Txillardegi
Koldo Izagirre	Anjel Lertxundi

Honetaz gain, badaude beste bi testu, bata Joseba Sarrionaindiarena eta Arantxa Urretavizcayarena bestea, idazleak berak ez beste batekitzuliak: Bakartxo Oyarzabaleketa Maite González Esnaiek lehenengoa, eta azken honek bakarrik bigarrena, biak Jesús M^a Lasagabasterrek berrikusi dituelarik. Itzultzaile ugaritasun honek garbi asko adieraz ditzake itzulpenen artean gertatzen diren aldeak eta desbiraketak, batez ere, kontutan hartzen badugu itzulpen lanaren emaitza egiten duenaren arabera izaten dela beti. Interesgarria izan liteke eza-gutzea, bestalde, zer dela eta jokatu duten era batera edo bestera, baina ziur gaude beraiek bakarrik dakiten gauza dela hori, eta beraz ez gara honi buruz gehiago luzatuko.

Desberdintasunak: joerak

Edozein Antologiaren funtsezko helburua gutxienezko batasun bat aurkeztea izanik, honetan ikusten dugun puntu kritikagarrienetarikoa bat hori berori litzateke, alegia, koherentziarik eza nabarmena, bai testuen aukeran, bai itzulpenak lantzerakoan.

Batasun falta hori garbi justifikaturik gera daiteke gure ustez erabili diren irizpide edo itzulpen joera desberdinetan. Esan dezagun beraz, bi joera nagusi ikusten ditugula, itzulpenak nola burutu jarrera desberdinak agerian jartzen dituztenak.

a)Joera dinamikoa edo zentzuzkoa

b)Joera formalista edo hitzez-hitzezkoa

Hauez gain, esan liteke beharbada badela beste bat, aurreko bien erdian legokeena:

c)Joera orekatua

Liburuko itzulpen lanen egileak sail hauen artean banatzerakoan horrela geratuko litzateke zerrenda:

a) Joera dinamikoa A. Lertxundi

Txillardegi

Bernardo Atxaga

Mikel Hernández

Laura Mintegi

b) Joera formalista Bakartxo Oyarzabal

Maite González

Jose Agustin Arrieta

c) Joera orekatua Ramon Saizarbitoria

Koldo Izagirre

Sailkapen honetatik ateratzen dugun lehenengo ondorioa zera da: zentzuzko joera beste bien gainetik nagusitzen dela, hamar itzulpen horietatik bost esandako joerari bait darraizkio. Era berean, begibistakoa da kasu bakoitzean zeri eman zaion garrantzi gehiago, ondoren azalduko dugunez.

Zentzuzko joera: dinamikoa

Sarritan gerta daiteke bi hizkuntzaren artean desoreka ageri bat dagoenean, jatorrizko testua itzultzeko guztiz baliokideak izaten diren formak aurkitzea neketsua izatea; horrelako kasuetan itzultzaileak

jatorrizkoan esaten dena hartu eta interpretatu egin behar izaten du orijinaletik urrunduz. Euskara eta gaztelaniaren artean desoreka hori gertatzen bada ere (hori aitortu beharrean gaude) ez dugu uste arrazoi nahikoa denik Antologia honetan jokatu den moduan jokatzeko; agian esplikazio bat izan liteke, baina ez litzateke inolaz ere justifikaturik geratuko.

Esan bezala, joera honi jarraituz burutu da liburuan agertzen diren itzulpenen erdia; "Zer" esaten den itzuli dute, baina "nola" esaten den ez; hori onargarria da itzulpen pragmatikoan, inoiz ez itzulpen literarioan. Orijinalarekiko leialtasuna hautsi egiten dute, formaren aldetik ez ezik zentzuaren aldetik ere bai kasu honetan. Daukagun inpresioa itzulpenak konparatzerakoan itzuli baino gehiago beste testu bat sortu nahi izan dutelakoa da, jatorrizkoan dagoenaz gain ez dagoena ere idazten bait dute sarri. Gure ustez, horrela jokatzek kritika zorrotz bat merezi du; izan ere, hori ez da itzultzea, birsortzea baizik. Adibide egokia da literatura nola itzuli behar ez den azaltzeko.

Ikus dezagun B. Atxagaren testuaren ondorengo perpausa eta berorren itzulpenarekin konparatu:

Eusk. 68. orria: (11-12)	"Komeni zaizu, derrigorrezkoa ez izan arren, edozein musika entzuten egotea".
-----------------------------	---

Gazt. 69. orria:	"Es también necesario, aunque en un grado menor, que escuche música, cualquier canción de texto incomprensible para usted, una canción, por ejemplo rusa".
------------------	--

Hemen garbi asko ikusten da goian esandakoa; bi perpaus horien aldeak nabarmenak dira. Ezin daiteke esan hau itzultzea denik ez bait da gauza bera adierazten. Gaztelaniazko esaldia askoz ere luzeagoa gertatzen da itzultzaileak inolako arrazoirik gabe asmatu egin duelako euskarazkoan ez dagoena.

Bestalde, "derrigorrezkoa ez izan arren" eta "en un grado menor" ez dira parekoak, ez bait dute mezu berbera transmititzen; gure ustez ederki jar zitekeen "aunque no es imprescindible".

Har dezagun orain ondorengo berbaldia: (B. Atxaga)

Eusk. 70. orria: “Sukaldean ontzi bete ur edan ondoren
 (2-4) —eta lepogaina ur berberaz igurtziz gero,
 are eta hobeago— bisita ezazu komuna ma-
 haian bereseri aurretik”.

Gazt. 71. orria: “Beba un poco de agua —y si viene helada
 (2-6) no desaproveche la ocasión de mojarse el
 cuello— y antes de volver a sentarse ante la
 mesa eche una meada suave (en el retrete,
 se entiende, porque mearse en el pasillo no
 es, en principio, un atributo de lo litera-
 rio)”.

Hemen berriro ikusten da Atxagak hartu duen askatasuna nahi duena eta nahi duen moduan itzultzeko: parenthesis artean jarri duen esplikazio hori sobran dago erabat. Baina aipatu daitezke beste desegokitasun batzuk:

Informazio galera —“sukaldean ontzi bete ur”. Hau ez da inondik agertzen gaztelaniazko testuan.

Hizkuntza literarioa ez zaintzea —“bisita ezazu komuna” eta “eche una meada (en el retrete...)” espresioak arras desberdinak dira; gaztelaniazkoa askozaz gogorragoa da eta indar gehiago du euskarazkoa baino. Jatorrizkoaren eufemismo hori ilaundua geratzen da espresio bulgarra erabiltzean. Beraz, berbaldi osoa hartuta, ez dugu itzulpen-tzat hartzerik jatorrizko testua eta itzulpenekoa ez bait datoz bat.

Zentzuzko joera honen ildo beretik jarraituz, aipatu beharrekoa da baita ere, bi testuen maila literarioak aurkezten dituen alde edo desberdintasunak. Zenbait kasutan itzulpeneko testua jatorrizkoaren gainetik aurkitzen da prosa dotore eta erosoagoa bilatzen bait da; erabiltzen diren espresioak egokiak badira ere hizkuntza horretan, gainditu egi-ten ditu euskarazkoak testu literarioago bat sortzen delarik.

Hona hemen adibide bat: (A. Lertxundi)

Eusk. 106. orria: “Lur eman zidatenerako deseginxeak zi-
 (1-3) ren aurpegietako marra minduak, disimu-
 latu ezin diren malko oharkabeak, haspe-
 ren arin bezain iheskorak”.

- Gazt. 107. orria: “Esas cansadas arrugas de sus caras, esas
(1-4) imperceptibles lágrimas deliberadamente
ostentadas, esos suspiros tan suaves
como fugaces habrán ya desaparecido
para cuando terminen de enterrarme”.

Bi perpaus hauek jatorrizko eta itzulpeneko hasierari badagozkio ere, nahiko izan daitezke A. Lertxundik itzulpenarekiko duen jokae-ran konstante bat izango dena egiaztatzeko: interpretazio askatasuna eta testua aberastu nahia. Espresioei lotzen bagatzaizkie zera ikusten dugu:

“Marra minduak” eta “arrugas cansadas” ez dira gauza bera, lehe-nengoak duen indarra eta adierazkortasuna bigarreanean desagertu egi-ten da zeharo ezberdina den beste espresio bat erabiltzean; “rayas do-loridas” esan zezakeen inolako problemarik gabe. Era berean, “disi-mulatu ezin diren...” eta “deliberadamente ostentadas” espresioak har-tzen baditugu, berehala jartzen da agerian gaztelaniazko forma asko-zaz aberatsagoa dela eta ez duela mezu berbera adierazten. Gure iri-tziz, “lágrimas imposibles de disimular” eta “lágrimas deliberadamen-te ostentadas” esateak aski esanahi desberdina iradokitzen digu. Ho-nez gain, aditz denbora aldaketak –futuroa lehenaldiaren ordeztu– eta sintaksiaren ordenak salatzen dute itzulpenaren hainbat desegoki-tasun.

Argi dago Lertxundik hautatu duen bidea jatorrizko testua oinarri bezala hartu eta beste testu bat sortzekoa izan dela.

Txillardegiren itzulpena hartuz gero alderantzizko fenomeno-a-rekin egiten dugu topo; hau da, jatorrizko forma zehatz jarraitzen saiatzen bada ere, gaztelaniazko espresioak desegokiak gertatzen dira.

- Eusk. 158. orria: “Andere pare bat bakarrik, ezkerraldeko
(16-17) gozotegiaren ondoan kalaka aspergai-
tzean”.

- Gazt. 159. orria: “Sólo una pareja de damas era visible,
(18-20) mientras charlaban incansablemente junto
a la bombonería de la izquierda”.

Bistan da gaztelaniazko "una pareja de damas" espresioa erabat inpropioa dela kasu honetan, itzultzaileak lexikoaren hautapenean izugarrizko hanka sartzea egin duela salatuz; "un par de mujeres" hobeto legoke.

Itzulpen joera honen barruan ikusi dugunez, itzultzaileek aukeratu duten bidea jatorrizko testutik urruntzekoa izan da, beronekiko leialtasuna hautsiz bai forma eta bai zentzuaren aldetik; hori egiaztatu ahal izan dugu itzulpeneko testuetan etengabe agertzen diren gehikuntzak direla medio. Badago, hala ere, aldebesteko fenomenoak: ezabaketak alegia.

Begira diezaiogun Mikel Hernándezen itzulpenari:

Eusk. 78. orria: "Eta gogoratzen naiz bestalde Rilkek esan-dakoaz, idaztea utzi behar dela eta hura ga-be posible baldin bada bizitzea, bada, ez da hitz bat gehiago idatzi behar. Badakit ez dela snobismoz idatzi behar baina ez da nire kasua bestalde. Ni ere homme plume naiz, Flaubertek zioen bezala".

Gazt. 79. orria: "O como decía Rilke, hay que intentar de-
(9-13) jar de escribir y vivir así si es posible, sin la escritura, sin escribir una sola palabra más. No hay que escribir por esnobismo, yo también soy un homme plume como de-
cía Flaubert".

Arretaz konparatzen baditugu bi berbaldiak konturatzen gara euskarazkoan dauden hiru esaldi (bi nagusi, eta bat nagusi baten koordinatua) ez direla inondik agertzen itzulpenean:

"eta gogoratzen naiz bestalde"

"badakit"

"baina ez da nire kasua bestalde"

Lehenengoaren ordezkari esamolde ezberdin bat erabiltzen du jatorrizkoaren batere antzik ez duena "o como decía Rilke", eta besteak aipatu ere ez ditu giten.

Adibide honetan aipagarria da sarri askotan gertatzen den beste ezaugarri bat ere: puntuazio aldaketa.

Euskarazkoan: "... ez da nire kasua bestalde, Ni ere homme plume naiz..."

Gaztelaniazkoan: "No hay que escribir por esnobismo, yo también soy un..."

Ikusten denez, jatorrizkoan bi esaldi nagusi ditugu puntu batek bereizirik; itzulpenean bereizketa hori desagertu egiten da koma jarztean bi esaldiak lotuagoak gertatzen direlarik.

Adibide hau nahiko sinplea suerta badaiteke ere, balio diezaguke froga gisa itzulpen hauetan puntuazioari eman zaion garrantzi eskasa egiaztatzeko.

Ikus dezagun beste esaldi bat:

Eusk. 80. orria: "hodei iragaite mengel pairaezin hori, ezer ez dagoela definitiboa bizitzan, zerbait errebelatzen zait barruan; ez nagoela konforme..."

Gazt. 81. orria: "Ese insoportable y frágil transitar de nubes, que nada hay en la vida sea definitivo; se me rebela algo por dentro, siempre pienso, como si fuera un niño..."

Azpirarraturiko esaldiak ditugu aztergai hemen; ohartzen bagara ikusiko dugu ordena ezberdinean datozela, bata puntu eta komaren aurretik, eta puntu eta komaren atzetik bestea, azken hau ondorengoari erantsi zaiolarik. Aipatu behar da, berriro, beste ezabaketa bat:

"... ez nagoela konforme..." -honek ez dauka bere parekorik itzulpenean.

Hona iritsita, egoki deritzogu joera dinamiko edo zentzuzkoari buruz ondorio txiki bat ateratzea. Zalantzarik gabe, literatura itzultzerakoan Nola esaten den Zer esaten den bezain garrantzitsua da, eta hauetako alderdi bat ahulduta geratuz gero itzulpena bide okerretik burutua izango da. Bada, aipatutako adibideak aski izan daitezke zer nolako bidea aukeratu den azaltzeko. Gure ustez, ez dago arrazoi gehiegirik era horretan jokatzeko, batik bat, itzulpena problemarik gabe zehatzagoa lortu daitekeenean, baldin eta jatorrizkoa ahalik eta hurbitetik jarraitzen bada. Gutxi gora beherako itzulpenak egiteak seriotasun falta nabarmena salatzen du itzultzaileari dagokionez.

Hitzez-hitzezko joera: formalista

Itzulpen hauek burutzeko jarraitu den bigarren joera nagusia litza-teke honako hau. Jatorrizkoaren formarekiko leialtasuna (baita zen-tzuarekikoa ere) bilatu da batez ere, "Nola esan"ek garrantzi berezia hartu duelarik. Esan dezagun itzulpenei lotuz, J. A. Arrieta, A. Urre-tavizcaya eta J. Sarrionaindiaren itzulpen lanak nahiko zehatzak dire-la eta aurrekoan gertatzen zen "birsortu nahi" hori baztertu egin dela.

Hitzez-hitz itzultzeak, jakina, daukan arazoa izaten da sarritan itzulpeneko testua artifiziala gertatzea, sintaksi eta egitura gramatika-lei dagokienez. Aipaturiko hiru itzulpenak joera honen inguruan mu-gitzen badira ere, ez dugu uste era horretako problemak sortu direnik kasu honetan, ez bait da gaztelaniazko testua traketsa edo bortxatua egiten. Esan beraz, lortu den emaitza ontzat har daitekeela, nahiz eta lexikoaren hautapenean zenbaitetan huts egin dela iritzi litekeen. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- | | |
|------------------------------|---|
| 1.Eusk. 144. orria:
(5-7) | "Hari mehe eta geldotan hedatzen da kri-seilu ahul baten argia, argi elektriko gai-soa, miarma sare baten antzera". |
| Gazt. 145. orria:
(6-8) | "La luz, desangelada luz eléctrica de una débil lámpara, se extiende en delga-dos y tímidos hilos, como una tela de araña". |
| 2.Eusk. 144. orria:
(7-9) | "Kristala hautsirik eta orratzak geldirik dituen horma-erloju bat dago, gainera-ko guztien zaindari". |
| Gazt. 145. orria:
(8-9) | "Hay un reloj de pared con el cristal roto y las agujas paradas haciendo de guardián de todo lo demás". |
| 3.Eusk. 146. orria:
(3) | "... eta bidazti saldo ezezagunak ere". |
| Gazt. 147. orria:
(3) | "... o las anónimas manadas de vian-dantes". |

Ikusten denez, itzultzaileak ez du asmatu hitzak aukeratzean; izan ere, "desangelada luz" eta "argi gaisoa" nekez dira baliokideak; era berean, "tímidos hilos"ek ez dirudi oso egokia kasu honetan; "manadas" esatea gogorra gertatzen da gaztelaniazko esaldian. "... haciendo de guardián de..." espresioak bestalde bortxatu samarra dirudi; hobeto legoke "como guardián de todo lo demás".

Erdiko joera: orekatua

Ikusi ditugun itzultzeko bi modu nagusi horien erdian kokatzen dugu azkeneko hau; aurreko bien hurbiltze bat suposatzen du, hau da, bai forma eta bai zentzua biltzen dira itzulpeneko testuan bakoitzak duen garrantzia mantenduz.

Gure ustez hau litzateke jarraitu beharreko itzulpen era, literaturari dagokionean bederen; izan ere, gaur egungo literatur itzultzaileak honen inguruan mugitzen dira, beroni jarraituz lortzen bait dira itzulpenean emaitzarik onenak.

Antologia honi lotuz esan dezagun Koldo Izagirre eta Ramon Sazarbitoria sartzen direla honetan, beraien itzulpenak orohar egokiak suertatzen direlarik. Ardura berezia antzematen zaie hizkuntza literarioa zaintzeko (jatorrizkoa, noski), eta esan behar da neurri haundi batean jatorrizko testuaren balio literarioak neurri doiez isladaturik geratu direla itzulpenean. Badira, ordea, espresio batzuk gaztelaniaz euskaraz baino aberatsagoak gertatzen direnak. Har ditzagun ondorengo esaldiak: (K. Izagirre)

Eusk. 94. orria: "Legeak sortu aurretik, erregeak agintzen zuten".
(5)

Gazt. 95. orria: "Antes de crearse las leyes, mandaban los reyes".
(4-5)

Edo:

Eusk. 94. orria: "Eta horregatik errege botako dun legerik ez omen do".
(7-8)

Gazt. 95. orria: "y por eso dicen que no hay ley que derribe al rey".
(7-8)

Bistakoa da hemen, bi adibide hauen gaztelaniazko esaldiak literarioagoak iruditzen zaizkigula, literaturtasunezko sentsazioan abarriago eragiten digutela, jatorrizko testuan ez dagoen errima dela eta.

R. Saizarbitoriaren itzulpena hartzen badugu konturatzen gara zenbaitetan espresio motelagoak erabiltzen dituela:

Eusk. 136. orria: "Pago lepo luzeen ostro tartetik filtratu zen argi lanbro berdea".

Gazt. 137. orria: "La llovizna de luz verde que se filtraba a través de las hojas de aquellas hayas esbeltas".

Argi dago oraingo honetan, "pago lepo luze" espresioaren esanahi zehatzak indarra galtzen duela gaztelaniaz "hayas esbeltas" jar-tzean.

Beste horrenbeste egiten du itzultzaileak ondorengo honetan:

Eusk. 136. orria: "...ezpainetatik zerbeza aparra zeriola".
(8)

Gazt. 137. orria: "...los labios llenos de espuma de cerveza".
(9)

Euskarazko espresioaren dinamikotasun hori ez da itzulpenean is-ladaturik geratzen.

— — —

Artikulu honetan zehar ezarri ditugun adibideak (askozaz gehiago jar genitzakeen) balio izan digute, alde edo moldez, agerian jartzeko itzulpenetan egin diren era desberdinetako desegokitasunak; ikusi ahal izan ditugu, baita ere, zenbait kasutan jatorrizko testua eta itzul-penekoaren artean dauden alde nabarmenak, itzultzaileek aukeratu duten bidea, eta, inportanteena, gaur egungo euskal itzulpenaren egoera, zeinak lan horretan aritzeko ezinbestekoa zaigun eredu finko baten gabezia salatzen bait du.

Liburuaren errakuntzez zerbait

Zoritxarrez, honetan ere badago zer esanik. Beti uste izan dugu liburu bat argitaratzea arreta haundiz egin beharreko lana dela; ez zaigu iruditzen, ordea, despisteak, ahazketak, inprenta akatsak e.a. ikusita behintzat, honako hau eskatzen dugun eta euskal idazleen elkarteak aldarrikatzen duen ardura horrekin burutu denik. Guzti honen pentsaerazten digu kontu gehiegirik gabe aritu dela lan honetan, berorrekiko beharrezkoa den seriotasuna beste une egokiagoetarako utzirik.

Ondorio gisa

Esanak esan, eta aipatuak aipatu, guzti honetatik ateratzen dugun konklusio nagusia zera da: itzulpenarekiko seriotasun falta (eta agian profesionaltasun falta) Antologia honetan parte hartu dutenen aldetik; izan ere, ez zaio itzulpenari behar den garrantzia eman (edo eman nahi izan) era honetako eginkizun batek duen balioa estalia geratu bait da errazenera jo nahi izan delako askotan. Kontutan hartuz gure literatura hau ez dela sobera ezaguna Euskal Herritik kanpo, ahalegin dexente bat egin dezakegu hori posible izan dadin, baina behar diren gauzak eta behar diren moduan eginez, hau da, kalitate minimo batez, ez edonola.

— — —

Ondoren adibide zerrenda bat jarriko dugu lexiko hautapenari dagozkion zenbait akats nabarmentzeko. Hona hemen:

- | | |
|--------------------------------|--|
| 1. Eusk. 92. orria:
(4-5) | “Ez ziren bederatziak soinu entzun zutenean”. |
| Gazt. 93. orria:
(4-5) | “No eran todavía las nueve cuando oyeron la música”. |
| 2. Eusk. 92. orria:
(10-11) | “ <i>lukafika</i> puskak makiletarik zintzilik”. |
| Gazt. 93. orria:
(11-12) | “largas longanizas colgando de pértigas”. |

3. Eusk. 134. orria: "Lehendabizi izerak aldendu".
(9)
Gazt. 135. orria: "En primer lugar liberarse de las sábanas".
(10)
4. Eusk. 134. orria: "Eskuineko eskuaz".
(10-11)
Gazt. 135. orria: "Con la mano izquierda".
(12)
5. Eusk. 134. orria: "Etzan".
(2)
Gazt. 135. orria: "dejarlo caer".
(2)
6. Eusk. 136. orria: "Argiaren koloreetan identifikatu behar nuena".
(14-15)
Gazt. 137. orria: "... que tenía que haber identificado a partir del colorido de la luz".
(15-16)
7. Eusk. 176. orria: "... non galtzen dira mutil koskorren ipurdiak".
(22-23)
Gazt. 177. orria: "... dónde se pierden los culos de los chavales".
(21)
8. Eusk. 144. orria: "... desira lizunak gogoratuaz".
(16)
Gazt. 145. orria: "... paladeando deseos obscenos".
(17)
9. Eusk. 158. orria: "Eta biharamun arratsean agian...".
(1)
Gazt. 159. orria: "Y tal vez al día siguiente, a la hora del crepúsculo vespertino".
(1-2)
10. Eusk. 158. orria: "Postetxetik behera doan kale nagusian, inor ez".
(13)
Gazt. 159. orria: "En la calle principal, que baja de la Casa de Correos, no había estrictamente nadie".
(13-14)

SINTESIS

Aunque el número de textos traducidos del euskara a otras lenguas es bastante reducido, hay que decir que va en aumento. Una pequeña muestra de ello puede ser el libro titulado "Antología de la Narrativa Vasca Actual", que impulsado por la Asociación de Escritores Vascos ha sido publicado en 1986. En dicho libro figuran 10 textos (tanto relatos como fragmentos de novelas) emparejados con sus respectivas traducciones, que en la mayoría de los casos han sido realizadas por los autores mismos y en algún caso por otra persona.

El objeto de este artículo es mostrar en pocas líneas las tendencias y criterios que se siguen en la narrativa vasca y valorar en qué medida son correctas las traducciones, buscando siempre unas conclusiones generales.

Para ello nos hemos esforzado en exponer de un modo simple y objetivo los errores e imprecisiones con diversos ejemplos ilustrativos.

La primera observación es que las traducciones en conjunto no tienen ninguna homogeneidad. Ello se debe, en nuestra opinión, a que han sido realizadas por distintos traductores y que ninguno de ellos es traductor profesional, lo cual podría justificar el resultado.

Ya que el objeto principal de toda antología es ofrecer una mínima unidad en sus textos, uno de los puntos que nos parecen más criticables en ésta es la falta de coherencia en la elaboración de las traducciones. Esta falta de unidad puede justificarse con las tres tendencias o criterios que se han seguido:

- La tendencia dinámica o de sentido (A. Lertxundi, Txillardegui, B. Atxaga, M. Hernandez y L. Mintegi). Estos textos nos dan la impresión de que son versiones y no traducciones; en nuestra opinión merecen una dura crítica y son una muestra del modo en que no se debe traducir.

- La tendencia formalista o literal (B. Oyarzabal, M. Gonzalez, J. A. Arrieta). Estas traducciones nos parecen aceptables aunque en algún caso se puede estimar que han errado en la elección del léxico.

- La tendencia equilibrada (R. Saizarbitoria, K. Izagirre). Esta tendencia es intermedia de las anteriores y en nuestra opinión ésta sería la manera en que se debe traducir la literatura, que es la misma que siguen la mayoría de los traductores de literatura.

Todo lo anterior nos muestra que es necesario un modelo seguro de traducción en euskara.

En cuanto concierne a la edición del libro, viendo las erratas, los despistes, olvidos, etc. notorios que hay en todo él, no nos parece que se haya llevado a cabo con el celo que nosotros pedimos y proclama la misma asociación de escritores.

Las conclusiones principales que se obtiene de esta antología es la falta de seriedad (y tal vez de profesionalidad) por parte de los escritores y de los responsables de la antología en lo que respecta a la traducción. Pensamos, por tanto, que tanto en lo que concierne a la elaboración de una antología

como en lo que respecta a los cuidados de edición, este esfuerzo ha sido bastante poco serio, y que esta "antología" no responde ni en su selección ni en su realización, a lo que es realmente la narrativa vasca actual.

SYNTHESIS

Although the number of texts translated from basque to other languages is quite small, it must be said that it is growing. Proof of that could be the book entitled "Anthology of Present day Narrative Basque", which, launched by the Association of Basque Writers was published in 1986. Ten texts appear in this book (short-stories as well as parts from novels) and they go, coupled with their respective translations which for the most part have been done by the writers themselves though in some cases by someone else.

The object of this tendencies is to show, in only a few lines the tendencies and criteria continued to be used in Basque Narrative and to see to what extent the translations are correct -with a view to general conclusions always.

To do this, we have tried to show in a simple and objective way, the errors and imprecisions in various illustrative examples.

The first observation is that in general the translations have no homogeneity. We believe that this may be because they have all been done by different translators, none of them being professional translators.

As the main principle in all anthologies is to offer some sort of unity of the texts, one of the things which we would most criticize here would be the lack of coherency in the elaboration of the translations. This lack of unity may be justified by the three tendencies or criteria which have been followed:

- The dynamic tendency -or meaning. (A. Lertxundi, Txillardegui, B. Atxaga, M. Hernandez and L. Mintegi). These texts give us the impression that they are versions rather than translations; in our opinion they should be strongly criticized and are a clear example of how not to translate.

- The formalist or literal tendency: (B. Oyarzabal, M. Gonzalez, J.A. Arrieta). These translations are quite acceptable to us though occasionally one might say that they have made mistakes in the choice of lexic.

- The balanced tendency. (R. Saizarbitoria, K. Izagirre). This tendency comes somewhere between the above two tendencies, and it is in our opinion the way in which literature should be translated, and is the way in which most translators of literature work.

All this goes to show that a safe model of translating Basque is needed.

So far as the editing of the book is concerned, seeing the mistakes and absent mindedness, which can be seen throughout the whole of it, we do

not think it has been carried out nearly as well as we would have hoped or as well as it has been proclaimed by the Writer's Association.

The main conclusion we can come to with this anthology is the lack of seriousness (and may be of professionalism) on the part of the writers and those responsible for the translation of the anthology. Therefore we think that concerning both the elaboration of the anthology and the editing, the effort made has not been a serious one, and that this "anthology" does not represent well either in the selection, or in its realization, what present day Basque narrative really is.